

EIBARKO MUTILA ERRUSIATIK ERRENTERIARA

Jone Idiazabal



Euskaditik atera zen eguna. Ezkerrekoa Rinaldo, eskubikoa Enrike bere anai zaharrena eta amarekin.

“Gudako haurrak”. Askotan entzun dugu zerbait honi buruz eta hauetako batekin hitzegiteko eta bere bizitza ezagutzeko izan dudan lehenengo aukera aprobetxatu nahi izan dut. 1923ko Urriaren 23an Eibarren jaio zen Rinaldo Astarloa Iraegola dugu aurtengo protagonista. Izen xeblebre hori zeini bururatu zitzaion ez dakien lagun honek Errusiatik bere jaioterrira bueltatu nahian, Errenterian bukatu du, inoiz ikusi gabeko itsasotik gertu bizi asmoz.

Zazpi urte zituela hil zitzaion aita eta amak lau semeak aurrera ateratzeko gau ta egun lan egin behar izan zuten. Gure mutikoa Eibarko eskolara joan zen guda hasi arte, pulmonia bat zela eta Elgetako aiton-amonen baserrian igaro zuen urtea, euskara ikasteko oso ondo etorri zitzaionalarik.

1936ko guda zibilean Erandion errefuxiatu zen familia, 17 urteko anaia zaharrena ezik, soldaduska egiten ari zenez, ez zuen ihes egiteko aukerarik izan.

Eusko Jaurlaritzak gudaren ondorio larri eta gogorretik haurrak urruntzea erabaki zuen eta Rinaldo eta bere anaia txikiari Errusiara joan nahi zuten galdetu zietenean, bai noski erantzun zuten, Japoniara ere joango liratekeela, ze azken finean bidaia bat abentura bat zen. Guztira 3.000 haur inguru eraman zituzten Sobiet Batasunera.

Horrela 1937ko Ekainaren 13an, Rinaldok 13 urte zituela Santurtzin “Habana” urontzian sartu eta Bordelera eraman zituzten. Han “Sontay” urontzi frantziar batera transbordo egin ondoren, Mantxako itsasartetik, Baltikotik barrena Ekainaren 22an Leningradora (gaur San Pettesburgo) iritsi ziren.

Han, estatuko katalan, madrildar eta asturiakoekin topatu ziren eta beraientzat prestatutako barnetegietan bizitzen jarri zituzten. Ez ziren ezertaz kezaketen, dena bere esku baitzeukaten, ikasketa guztiak erderaz eta bai errusiera ere egunero ordu bete. Haur bakoitzaren abileziak eragiten zituzten eta Eibarren solfeoa

ikasten zuela eta Rinaldo musika bandan jotzen hasi zen. Urte hauetako oroipen zoragarriak ditu, erregea bezela tratatua sentitzen zuen bere burua.

1939ko Irailean Leningradoko eskola tekniko batera eraman zuten eta bertan II. Guda Mundiala hasi arte ikasten aritu zen.

Eusko Jaurlaritzak gutxi gora behera urte pare baterako eraman zituztela esan zuen, baina 1940an Finlandia, Polonia, e.a.ekin guda hasi eta itzulera atzeratu zen.

1941eko Ekainaren 22an II. guda mundiala hasi zenean bertan geratzea erabaki zuen bonbardeaketak zer ziren ondo aski baitzekien, horretaz ihes egin nahian atera zituzten Euskaditik eta! Baita inbasoreak zer ziren ere gurasoengandik ikasia zutenez Errusia defendatu behar zuela erabaki zuen.

Errusiarrek haseran onartu ez arren hilabete batean bildu zen ejerzitorea Leningrado defendatuz, batzutan erasoetan, bestetan erretagoardian, beti egoera zailetan gudan parte hartu zuen. 1942ko Martxoan eskola militarrean sartu eta ikasketa azkar batzuk egin ondoren Ekainerako teniente bezala gudara bueltatu zen, 18 urtekin ofizial gazteena izanik eta Leningrado, Mosku, Estalingrado eta Ukraniako parajeetan borrokatu zuen talde bat burutuz.

Besteak beste gudan lortu zuena eritetxe ezberdinetan egotea izan zen. Izozketa gaitik oinetako behatz batzuk moztu behar izan zizkioten eta 1943ko Urriaren 12an aleman batek 18 metrotik botatako tiro batek zauritu zuelako, besoa behar den bezela jaso ezinik geratu zen. Hala ere zera dio, helbi bat hiltzeko kapaz ez bazara ere egoerak behartzen zaituela, guda guda da eta zuk ez baduzu hiltzen zu hiltzen zaituzte! Gizarte batetan gerta daitekeen gauzik okerrenetakoa dudarik gabe.

Egoera honetan aleman batek galdu zuen teklatako akordeoia bilatzea, suerteak irripar txiki bat egin zionaren seinale zen. Piskanaka bere kasa jotzen ikasi zuen eta aurrerago besoko ezinagatik botoizko bat erosi zuen.

1941etik 1943ra bitarte Leningradoko blokeoak bertan harrapatu zuen, bizitzan gertatutako gauza izugarriena izan omen zen. Pentsa ezinezkoa den gosea paseaz, egun batzuetan 3.000 bat hil izateko moduko gosea. Alemanek Leninen izena zeraman hiria helburutzat zuten baina ez zuten lortu.

Errusian bertan 40 milioi pertsonekin bukatu ondoren (ia Estatu Espainol osoa), 1945eko Maiatzaren 9an guda bukatu zenean, bizitza zibilerara bueltatu zen instrukzio militarreko irakasle bezala Nikolas soldadu kideak zuzentzen zuen Leningradoko eskola teknikoan. Semetzat hartu zuen lagun honen bultzadarekin eta Estatuak lehen eta ez orain ematen zituen mota guztietako laguntzekin, lana fijo, edo dirua adibidez, Unibersitatean hastea pentsatu zuen, 1951ean al baitari karrera hasi eta 57an bukatuz.

1957an Ginebraren konbenioaren arabera egin ziren herri-irratzeetan bere anaia Enrike Euskadira itzuli zen. Rinaldok berriz Unibertsitateko ikasketak bukatu nahi zituen eta gerorako utzi zuen buelta, baina bera prestatu zenerako epea bukatuta zegoen.

Al baitari ikasi ondoren urte pare bat granja batetan lanean aritu zen. Gero klaseak emateari ekin zion, baina esandako laguntzak medio beste zerbait egin zezakeela ikusiaz 65etik 68ra bitarte biologiako karrera ikasi zuen.



Rinaldo II. Guda Mundiala hasi zanean.

Adopziozko aberriak besoak zabalik hartu arren eta han jasotako gure hizkuntzarekiko errespetua haundia izan arren, Euskadira etortzeko irrikia zuen Rinaldok. Lehen aldiz 1965ean etorri zen, atera zenetik 28 urtetara, senide bakoitzaren alaketak argazki bidez jarraitu zituen. Sobiet Batasuna eta Espainia artean ez zegoen harremanik eta lehen aldi honetan bere amarekin Hendaian elkartu zen. Oso arraroa izan omen zen, ume izatetik orain ama txikiena. Negar ez egiteko paktoa Rinaldok berak hautsi omen zuen azkar aski, besarkada eta musu artean.

Frankoren diktadura garaian hiru urte igaro baino lehen berriz etortzeko baimenik ez zegoenez, 68ko Martxora arte ez zuen bueltatzetik izan, baina ama bizirik aurkitzeko beranduegi, egun gutxi lehenago minbiziak jota hil baitzen.

Esan bezala, ikasketak bukatu ondoren lantokia aukera zitekeen eta etxebizitza eta hasteko dirua ere ematen zizuten. Rinaldok, Chernobyldik 600 kmra, 1.200.000 biztanle eta filtrorik gabeko fundizio industria zuen estepako Dniepropeprovsk hiria aukeratu zuen, ordurako beste eskola batean ezagutu zuen Ukrainari neskata batekin osatutako familia han baitzuen.

Horrela, 1969an bereiziki hizkuntza espainola irakasten zen eskola batetan zoologia eta botanika ematen hasi zen, 80ko hamarkadan zuzendari ordea izendatu zutelarik. Izakeraz alaia, soinu-jolea, abeslaria, atzerritarra eta kasik gizonezko bakarria izanik emakumeek beti atzetik omen zitun!

Hemen askotan entzun dugu Errusian kultura musikal haundia dagoela eta Rinaldok berak baieztatzen digu esandakoa:

– Han musika-tresnak oso merkeak ziren, ume batek entzumen musikala duen jakin aurretik piano bat izan zezakeen.

– 14 pisuko etxe batean 20 musika-tresna baino gehiago egotea normala omen zen eta

– Bakoitzak bere musika-tresnarekin bidaiatu beharrean hotel gutzietan edozein musika-tresna aurki zitekeela.

1968an musika banda bat antolatu zuen, denborarekin aizezko eta sokazko musika-tresna guztiak ezagutzera iritsi arte. Belarri ona eta zaletasun haundiari esker, musika idaztera ere ausartu zen. 200 pertsonen osatutako koro eta orkestak zuzendu omen zituen, txapelketetan 3. eta 4. sariak behin baino gehiagotan irabaziz.

Artikuloaren izenburua nondik datorren jakiteko pasadizo unigarrri bat kontatuko dizuet. 1986an honuntza egin zuen bidaiari bere Ukrainako herriko (ez noa berriro izen zail hori jarzea nahasteko arrisku haundia baitaukat) museoko ezagun batek emandako informazioarekin ikerketa egiteko ekarri zuen. Espainiako guda zibilean DNIEPROPEPROVSK-o abiadore bat Teruelgo Ruberes herrian hil omen zuten eta Rinaldo bertako kanposantura joan zen zerbait bilatu asmoz. Lau abiadoreen izenekin egindako estela aurkitu zuen. Kanposantuko zaindariak Errusiatik etorria zela jakin zuenean, orduan jarritako izar gorria Frankoren legeak debekatzen zuelako kendu zutela esan zion, baina jasota zuela eta berriz jarri zuen. Ondoren argazkiak atera eta hilerriko lurzati batekin Ukrainara bueltatu zen. Abiadorearen emaztea Rinaldoren etxetik gertu bizi zen eta ekintza izugarria antolatu omen zen bere itzuleran. Guzti honekin, afizionatu batzuk "El chico de Eibar" izenburutu zuten pelikula bat egin zuten Rinaldori buruz.

Berak bezalako elbarritasun bat zuten beste 14.000 bat pertsonen osatutako elkarte bateko lehendakaria izan zen.

Estatu espainolekoek zentru batetan elkartzen ziren noiz behinka. Horrela beraien arteko harremanak sendotu eta bakoitzaren herritik urrun egoteak dakartzan tristurak desagertzen ziren.

Elbarritasunagatik 55 urte zituela jubilatzen zen, legeez, gizonezkoek 60 urtekin eta emakumezkoak 55ekin jubilatzen dira. Ba beste pribilegio batzuk ere izan zituen, etxe bizitza, telefonoa, gasa, ura eta argindarra dohainik. Jasotzen zuen pentsioa gaitzakoena baino sei aldiz haundiagoa zen. Diru falta ez zuen, baina egoera aldatzen joan zen, besteak beste ez zegoen zer jan, ez estanteriak hutsik zeudelako lehen bezela, ze atzerritik ekarritako gauzeekin beteak zeuden, gauzen prezioak izugarri igo zirelako baizik.

Arrazoi hauek medio eta gelditzen zitzaion bizitza jaioterrian igaro nahi zuelako, honuntza etortzea erabaki zuen. 1990ean Euskadin babes ofizialeko etxe bizitza bat eskatu zuen nahiz eta gerrikoa estutu beharko zuela jakin.

1992an egin zuen beste bidaiari batean egunkari bat irakurri Eibarko Juan San Martin Arartekoa zela jakin zuen. Umetan bata bestearen aurka egindako burrukak etorri zizaizkion burura eta Gasteiza bisitatxo bat egitea otu zitzaion eta han aritu ziren aspaldiko abenturak gogoratuz. Rinaldok bere asmoak kontatu zizkionean San Martinek Erreterian ere etxebizitza babestua eraikitzen ari zirela esan zion eta mapan begiratu ondoren, ez baitzekien non zegoen kokatua gure herria, aukera egin zuen. 1993ko Apirilaren 15ean behin betiko Ukrainatik alde egin zuen, gaur egun Eibar jaioterria baino gustagarriagoa omen du Erreteria.

Hemen bizi garen moduak txundituta dauka.

Foru Aldundian gestioak egin ondoren hilabete pare batean Guardamaren egon ziren emaztea eta biok. Han ematen zieten arrai, egazti, tarta, ardo e.a. bere bizi osoan ez omen zituzten jan. Errusian ez zen horrelako ohiturarik eta hemengo jendea kexatzen ikustea hain gogorra egiten omen zitzaion, protestak alde batera uzten ez bazituzten bere jateko ordutegia aldatzeko prest zegoela esan zuela. Han botatzen zen janaria ikusi eta negar egin omen zuen. Hotelean oso giro ona zegoela dio, dantza, taberna, jokuak, abestiak e.a., baina liburutegirik ez. Harrituta utzi zuen, 1.200 pertsonen bi hilabetetan liburutegiaren beharrik ez izatea, liburu-zalea izan eta aukerarik ez. Operara ere joango litzatekeela dio baina alde batetik ez da egiten eta bestetik nahiko diru ez, han berriz sosa gutxikin joaten omen zen. Kultura bizitzeko zein modu desberdinak!

Zoritxarrez bihotzekoak jota eritetxeak ezagutu ditu eta jaso zituen saiamen, begikotasun eta erosotasunak sendatu omen zuten, beste kideetatik bildua daukan informazioak pentsa arazten omen dio ez direla estatuan Euskaditik kanpo horrelako portara jatorrak ematen.

Errusiako eritetxeetan berriz gaixoei egunean 15 minutuko bisita besterik ezin zaie egin, eta gaur egun alaba pediatrak idazten dionez, haurrak hiltzen omen dira botikarik ez dagoelako. Hemengoentzat egoera hau ulertezina bada ere.

Lehen norbait hautatu behar zenean ez zegoen ez abstentziorik ezta aurkakorik ere, bazekiten nor aukeratu, hobe esan da aukeratuta zegoen, aukeraketa agintariak aurretik pentsatzen zuten herriaren orde. Orain ulertzen dute ez zegoela eskubiderik. Jendeak ez zuen diktadurapean bizi zirenen kontzientziarik.

Sobiet Batasuna hain haundia izan da! Poloniatik Japoniara bitarte herri asko daude, txetxenoak, tartaroak... eta bakoitzak bere independentzia eskatzen du. Ukraina adibidez, 44 milioi biztanleekin, Estatu Espainola adineko extensiokoa da eta lehen zerealeen paradisua zen, bertatik 15 errepubliketara zabaltzen zen garia, anaiak bailiran partidu bakarraren edo kontseilu gorengo gidaritzapean. Orain pribatizazioaren ondoren, territorio zati batzuk aleman edo turkoen eskutan daude, Siberiako basoak adibidez japoniarrenetan. Lehen rubloa zen toki guztietako txanpona egun herrialde bakoitzak bere dirua du eta hori dela eta baliorik gabekoa. Beraz dolarra da jaun eta jabe. Herrialdeek janaria lortzeko arazoak dituzte.

Jendea bildurrez dago, baina itxaropena ere badute. Rinaldok dion moduan irtenbide ekonomikoa ez da 10 edo 20 urteetan argituko, errekupeazioa noski lortuko da, baina hurrengo belaunaldiek ikusiko dute. Dena berritu beharra dago, baina zaharrek ez dute beraien agintea utzi nahi eta korrupzioa gehitzen doa. Gasa, petroleoa, egurretan, e.a. dagoen aberastasunarekin antolaketa burutuko duen talde bat behar da, besterik ez.

Hona etorri eta Rinaldok lehenengo bi urtetan 45.000 pezeta inguru jaso eta zerbait aurreztu ahal izan zuen baina 94ko Azaroa ezkerotik ez du ezer kobratzen beraz gauzak konpontzen diren zai dagoen bitartean egoera larritzen doa. Besteak beste Elgetako baserriko lehengusuek eta Bergarako senideek emandako laguntzarekin bizi dira, baina irakasle izan ondoren diru eske ibiltzea gogorra egiten zaie.

Errusian geratu direnei hango pentsioaz gain, hilero Estatu Espainolak 120 dolar bidaltzen die, han aberatsak bilakatzen dira irakasle batek hilean 15 dolar irabazten duela kontutan izanik, dolarrek ez baitu hemengo balioa. Rinaldoren usteetan etorri direnei soldata gutxiengoa eman beharko lieteke, estatukoek autonomien ardura dela erantzun arren.

Gainera Sobiet Batasuneko zatiketa egin zenetik, 1992a eta gero atera zirenek, bakoitzak bere herritik jasotzen du pentsioa, hemen dauden Errusiakoak adibidez jasotzen dute baina Ukaniakoak, Rinaldo adibidez, ez dute suerte bera izan. Gaur egungo egoera luzatzen bada, bueltatu beharra izango du. Hori gertatu ezker, nola ala Rinaldorentzat laugarren guda izango litzateke. Lehenengo Euskaditik alde egin behar izan zuenean. Bigarrena, II. Guda Mundiala. Sobiet Batasuna desegin zenean hirugarrena. Eta Euskaditik berriro alde egin beharra, laugarrena.

Oarso aldizkari honen bidez nere desioa azaldu nahi diot, bizitzaren azken etapa Euskadin burutzeko aukera izan dezala, berak nahi duen bezala. Zorte on!



Rinaldo gaur egun.